



BARREN
TOKIKOM

Haizea dator Iparraldetik!

Elgoibartarrok Iparraldea hobeto ezagutzeko ekimena



Haizea dator Iparraldetik!

**Kantu-bazkaria, Aire ahizpekin
Belaustegi jatetxean**

Eta gainera, Eñaut Elorriaga eta Uxue Alberdi,
Jon Gurrutxaga, Iban Urizar ...

Urriak 24, larunbata. 14:00etan

Prezioa: 35€

Izena emateko azken eguna: urriak 19 (943 741 626)



EUSKARA
elgoibar

15-16 IKASTURTEA

Matrikula zabalik

Ikastaroak

- Aurrez aurrekoak: 2, 3 edo 4 egun asteen, mailaren arabera.
- Autoikaskuntza Internet bidez
- Ikastaro bereziak (enpresak, AISA, merkatariek eta ostalaritza)
- Perfilak (Administrazioa, Osakidetzak, Hezkuntza, ...)
- HABEren 1., 2., 3. eta 4. mailak
- EGA
- 16 urtetik gorakoentzat
- Matrikulaldia: irailaren 25era arte
- Langabetu, ikasle eta gurasoek, **MATRIKULA ERDIA**
- Bekatze sistema ikasturte bukaeran
- Informa zaitez Udal Euskaltegian!

ELGOIBAR: 09:00 – 13:00 / 15:30 – 19:30
DEBABE UDAL EUSKALTEGIA
Kalebarren plaza, 2 – Tel.: 943 742 731

**euskarak
batzen
gaitu**
EL EUSKERA
NOS UNE

**UDAL
EUSKALTEGIAK**
euskara ikasgaiak • classes de euskara



CURSO **15/16** IKASTURTEA



NORA HADI



“Erizaintzan, begi onetik ikusi nahi izanez gero, dena da polita eta oso emankorra”

Erizain moduan nator oraingoa! Aurreko astean, Pau Donés, Jarabe de Palo-ko abeslariak, idatzitako testu bat irakurri nuen. Pare bat aste dira koloneko minbizi bategatik operatu eta etxean dela indarrak berreskuratzen. Etxetik eskutitz bat bidali die ospitaleko langileei eta, bereziki, erizainei, jasotako tratuegatik eskerrak emanez.

Testua irakurri eta iraila den honetan, bost urte atzera bota dut begirada, unibertsitate hasierara. Disfrutatutako bost urte izan dira, esperientzia asko lagunekin elkarbanatu, hausnartu eta ikasteko.

Bost urte, denek aipatzen duten ospitaleko "usaina" etxeko bihurtzeko, teoria ikasi eta teknikak martxan jartzeko, edozein zerbitzurako deitu eta prest egoteko, enpatia eta tratu gizatiarra zer diren ikasi ta eskaintzeko...

Erizaintzan, nahi izanez gero, begi onetik ikusi nahi izanez gero, dena da polita eta oso emankorra. Notizia on bat elkarbanatzea emankorra bada, notizia txar bat eman eta laguntzeko aukera izatea oraindik emankorragoa da.

Onkologia eta zainketa aringarriak barne hartzen dituen zerbitzuan egin nuen lan ikasketak amaitu eta hurrengo hilabetean, eta hango psikologo batek esandako esaldia gogoan dut oraindik:

- "Minbizia gure zati bat da, gure zelulak dira eta harekin bizi behar dugu. Bestela, gure alde egin beharrean, gure aurka egiten dugu".

Garazi, kamara baten atzean mikrofonoa eskuan duzula, nola ikusten da minbizia?



GARAZI AYESTA



“Saiatzen naiz ‘kantzerrari’ eta gerrari urrunetik begiratzen, nahiz eta batzuetan ezin den”

Ezer gutxi dakit nik minbiziari, Nora. Hemen, kamerak eta mikrofonoak ematen dizuten babesetik, beste alde honetatik, mamu handi bat bezala bizi dudala esango nuke. *Kantzerra*. Ostras, hitz potoloa da gero... Nik hitzekin egiten dut lan batez ere, hitzekin eta irudiekin, eta horien konbinazioekin... eta onartu behar dizut, berba batzuek besteen aldean sekulako zama dakartela, berez. *Kantzerra* horietako bat da, minbizia. Hitzak berak dio, min-bizia. Bizitzeko mina ematen al du *kantzerrak*, Nora?

Zuk, hitzari hazka egin eta sakonago zer dagoen jakingo duzu, seguru. Eta agian, gertutasun horrek, *kantzerrarekiko* beldurra galtzen ere erakutsi dizu nolabait. Edo ondo esan duzun moduan, gure barruko zerbaite moduan sentitzen, onartzen, berekin bizitzen. Agian badakizu *kantzerra* jende askok daukala gaur egun, eta horietako askok aurrera egiten dutela, indartsu, bizirik. Ondo jakingo duzu dena ez dagoela galduta, inondik inora, eta bizia hor egongo dela zain, mina pasatu eta gero ere.

Baina mundu horretatik kanpo gauden askori izua sortzen digu odolak, eta ospitaleko usainak barruak nahasten dizkigu. Guk, baina, mikrofonoa eskuan hartuta, hitzetan jartzen ditugu han eta hemen gertatutakoak. Errefuxiatuak, eraso sexistak eta gaixotasunak. Onartu behar dizut, Nora, askotan saiitzen naizela entzute hutsarekin beldurtzen nauten berba horiei hazka gehiegirik ez egiten, haratago ez joaten eta gaiak distantziatik lantzen. Auto-defentsa izango da, akaso. Edo beldur hutsa agian.

Saiitzen naiz *kantzerrari*, eta gerrari urrunetik begiratzen, nahiz eta batzuetan ezinezkoa den. Nahiz eta batzuetan, kazetaritzan eta komunikazioan ere, barruak oihu egiteko eskatzen dizun. Mundua erotuta dagoela eta zu hori kontatzen ari zarela, mundua zurekin joango ez balitz bezala... Baina zure barruan badakizu poliki-poliki hitzei beldurra galtzeaz gain, hitzen atzean ezkututzen diren mamuei ere, hobe duzula, *kantzerrari* moduan, aurpegira begiratu. Eta aurrera egin.



Islandiar baten udako irakaspenak

A skotan uda aprobeztatzen da bi-daiatzeko, beste mundu batzuk ezagutzeko eta, zergatik ez, zeure mundua beste mundu horietara zabaltzeko. Horretan ari nintzela (edo saiatzen behintzat), hara non aurkitu nuen 'Where are you from?' galdetu, eta 'Do you know the Basque Country?' erantzunari aurpegi arrarorik jarri ez zion gazte bat. Islandiarra bera. Formalismo guztiak alde batera laga eta berau izan zen euskara-islandiera *pidginari* buruz berbetan hasi zena eta neu izan nintzen

hari zur eta lur begira geratu zitzaiena.

Irribarre inozo bat egin, eta euskararen gaur egungo egoerara ekarri nuen elkarrizketa, masailetak gorritua ezkutatzen saiatzen nintzen bitartean. Iparralde urrun hartako istorio bitxia ezin burutik kendu ibili nintzen enkontruhark iraun zuen denboran, eta bilaketa behartuaren ondoren duela 400 urteko gertakari batekin egin nuen topo, eus-

kal baleazaleak Islandiako kostan egindako merkataritza-harremanetatik sortu zen hizkuntza nahasketa batekin. Hara joandako euskaldunek bertakoekin komunikatzeko tresna eratu zuten, eta hitz solteak baino hartu-emanerako erabili zituzten esalditxoak iritsi dira gugainaino. XX. mendera arte, ordea, ez zuten *pidgin* horri buruzko idatzirik aurkitu. Badirudi, gainera, ez zela euskal baleazaleek erabili zuten *pidgin* bakarra izan, lehenago Ternuara joandako euskaldunek eta tokiko merkatariek Algonkin-euskara *pidgina* sortu baitzuten.

Aizu, ez dator gaizki noizean behin zu kanpoan irakasten saiatzen zaren horretatik pixka bat ikastea, islandiarrrak ezagutu behar izatea zeure arbasoen berri izateko. Hurrengorako, ez diot behintzat horren seguru erantzungo 'Where are you from?' galderari.

*"Aizu,
ez dator gaizki
noizean behin
zu kanpoan irakasten
saiatzen zaren horretatik
pixka bat ikastea"*



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Euskararen irakasketa

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus
Publizitatea: 943 743 704 - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutiak ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainara Argoitia KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio, Leire Alberdi MAKETATZAILEA Zalaa Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Iureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Enetz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze. INPRIMATEGIA Gertu Koop.E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

LAGUNTZAILEAK:



elgoibar
EUSKARAREN IZARRA



BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► NAN-A BERRITZERAKOAN, KONTUAN IZANI!

Aurtengo martxoan herritar batek adierazi zigun NANa berritzera joan zela, eta kalearen izenaren grafia zaharra jarri ziotela. Berak esan omen zuen, orain, grafia hori aldatuta zegoela (Udalak hala jakinarazi baitzien karta bidez), baina NAN bulegoko arduradunek

erantzun zioten, hori egin nahi bazuen, errolda-agiria eraman behar zuela.

Hori horrela, Udalaren Euskara Saila Polizia Nazionalarekin harremanetan jarri da, eta hainbat komunikaturen ondoren, lortu du aldaketa hori egiteko errolda-agiririk behar ez izatea, eta euren datu-basean kaleen izen ofizialak erabiltzea.

Beraz, honen bitartez jakinarazi nahi diegu herritar guztiei NANa berritzera joaten direnean, beraiak ere, gogoan izan dezatela zenbait helbidetan kaleen izena aldatu egin dela, eta aldaketa hori egiteko oztoporik-edo izango balute, eskertuko genukeela guri adieraztea.

Elgoibarko Udalaren Euskara Saila

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENez edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.

2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.

3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.

4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak

jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.


5. Ez dira onartuko: biraokak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetara zuzenduriko mehatxuak...

6. Ez dugu gaztekeraz datorren eskutitzik argitaratuko.



Josefa Gurrutxaga Askasibar

2015eko irailaren 11n hil zen, 95 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Florentina Fraile Muñoz

2015eko irailaren 8an hil zen, 90 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

II. URTEURRENA

Manolo Gil Zengotita

2013ko irailaren 17an hil zen, 85 urte zituela. Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, barixakuan, irailak 18, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenozi eskerrak aldeztu aurretik.



Gurasoentzako euskara ikastaroak antolatu dituzte euskaltegiek eta Udalak



Elgoibarko Udalaren Euskara Sailak, Udal Euskaltegiak eta AEK euskaltegiak, gurasoentzako hainbat euskara ikastaro antolatu dituzte, herriko ikastetxeekin elkarlanean. Haur jaioberrietatik hasi eta 12 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoek matrikula erdia baino ez dute ordainduko ikastaro horietan parte hartzeko. Horrez gain, gurasoek Udalaren beka lortzeko aukera izango dute, eta horri esker, izena ematerako orduan ordaindutako kopuruaren erdia bueltan jasoko dute. Euskara ikasteko hainbat aukera eskainiko dituzte euskaltegietan: euskara ikasten hasteko, hobeto edo errazago berba egiteko, edota hobeto idazten eta irakurtzen ikasteko. Ordutegiak, bestalde, gurasoen beharrezan arabera moldatu ahal izango dira.

Guraso izan gabe ere, euskara ikasteko matrikulazio epea irailaren 25era arte dago zabalik Elgoibarko bi euskaltegietan. Informazioa eskatzeko euskaltegietara deitu behar da: 607 601 423 (AEK) edo 943 742 731 (Udal Euskaltegia). Bestalde, diru-laguntza eta beketarako informazioa euskaltegietan ez ezik Udaleko Euskara Sailean ere eska daiteke. 943 744 366 telefono zenbakian edo e-posta helbide honetara idatzita: euskara@elgoibar.eus.

Mendaron ere euskara ikastaroak

Bestalde, Mendaroko Udala ere prest dago ikasturte honetan ere Mendaron bertan euskara ikastaroak emateko, Elgoibarko AEKrekin elkarlanean, eta deialdia egin du taldea sortu ahal izateko. Ezer ez dakitenentzat, erraztasuna hartu nahi dutenentzat edo tituluren bat eskuratu nahi dutenentzat izango lirateke taldeak, eta baldintza berdineko zortzi ikasle izan behar dira gutxienez.

Talderik sortu ez eta euskara ikastera kanpora joaten diren mendaroarren diru-laguntzak eskuratzeko aukera izango dute, era berean. Matrikula kostuaren %80ra arte ordainduko du Udalak, beti ere banaketa ikasle kopuruaren arabera eginez. Euskara ikastaroen eta diru-laguntzen gaineko informazioa udaletxean jaso ahal izango dute interesatuek eta eskaera-orriak, berriz, udaletxeko erregistroan eta www.mendaro.net webgunean dago eskuragarri.

Pintura eta eskulan ikastaroak Mendaron

Mendaroko Udalak antolatuta pintura eta eskulan tailerra izango da urriatik ekainera bitartean, 18:30etik 20:00etara: astelehenean, pintura, eta astearteetan, eskulan eskolak. Urteko kuota 163 eurokoa da, eta zati bat kurtso hasieran ordaindu behar da, eta bestea, apirillean. Irakasleak, bakoitzari, oinarritzko materiala banatuko dio eta gainerako material guztia ikasleak berak eraman beharko du. Izena emateko epea irailaren 25era artekoa da eta matrikula orria aurkeztu behar da udaletxean. Gutxienez lau ikasle egon behar dira, eta hamar gehienez.

Odol ateratzeak datorren barixakuan izango dira

Gipuzkoako odol bankua datorren barixakuan, irailaren 25ean, etorriko da Elgoibarrera, eta nahi duenak, 18:30etik 20:30era bitartean izango du odola emateko aukera osasun zentroko beheko solairuan. Arduradunek jakinarazi dute odol premia handia dagoela, eta gazteei egin diete dei bereziki, odola emateko.

'Autoko haurren segurtasuna' jardunaldia

Autoan haurrak lotzeko dauden sistemei buruzko kanpaina du abian Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak. Horren harira Mendaron jardunaldia egingo du gaur, ostirala, 16:30ean hasita, Herriko enparantzan. Ordenagailuetan bide segurtasuneko jolasak jarriko dituzte, baita azalpenak eman ere. Horren helburua da sistemak ezagutzea eta egoki erabiltzea, indarrean dagoen araudia betetzen dela egiaztatzea, sistemok egoki erabiltzea, haurraren pisuari eta tailari egokituta eta gaiari buruzko zalantzak argitzea, bai hitzez eta baita banatuko duten materialarekin.

Kirolari paralinpikoen argazkiak ikusgai daude Kultur Etxean



Juan Armentia argazkilari bilbotarraren lanak ikusgai daude Elgoibarko Kultur Etxean, Ongarri argazki taldearen eskutik. *Zetazko Gerlariak* izenburuko erakusketan kirolari paralinpikoen irudiak jaso ditu. Armentia zazpi Joko Paralinpikotan aritu da argazkilari lanetan, horien balentriak islatzen dituzten argazkiak jasotzen.

“Kirolari paralinpikoei argazkiak ateratzen zaletasunez hasi nintzen, baina kirolari handiak diren pertsonak ezagutzera emateko bidean nire zaititxo jarri dut. Bartzelonako jokoetatik Londonekoetara bitartean gai horren inguruan asko aldatu dira gauzak, ezagutza handiagoa da, baina oraindik asko dago egiteko jendeak kirol paralinpikoen berri izan eta lagundu dezan”, esan du Armentiak berak.

Zetazko gerlariak izenburuari buruz ere argazkilariak eman digu azalpena: “Zetazkoak kirolarien hauskortasuna adierazten du, bakoitzak bere istorio pertsonalak eragina; gerlariak, berriz, kirolean borrokarako erakusten duten gogoa”. Izenburu berarekin liburu bat ere badu Juan Armentiak, eta erakusketan salgai dago. Irailaren 26ra arte egongo da erakusketa, asteleheneetik larunbatera, 18:30etik 20:30era.

Egur Arte Tailerrak egoitza berria du



Herritarrek artearen hainbat arlo lantzeko Egur Arte Tailerra sortu zuten orain dela 34 urte Elgoibarren. Urterik gehienak Aita Agirre plazan igaro eta gero, Udalak instalazio berriak egokitu dizkio Merkatu Plazako lehen solairuan. Espazio zabala izanik, jende gehiago eta ikastaro berriak antolatzeko aukera izango dute.

PSE-EEK mozioa aurkeztuko du Udalean Elgoibar errefuxiatuentzako babes herri izateko

Elgoibarko PSE-EEKo zinegotzi Nerea Alustizak errefuxiatuen krisiaren inguruko mozio bat aurkeztu du Elgoibarko Udalean. Sozialisten bozeramaileak Udalarari eskatu dio Siria eta Irakeko errefuxiatuak hartzeko borondatea erakutsi duten herri eta hirien sarean sartzeko eta errefuxiatuak hartu ahal izateko prestatzeko.

Horren harira Alustizak zera adierazi du: “Gerratik ihesean atera dira sorterritik, beldurraren beldurrez, eta behar gorrian daude. Elgoibartik elkartasuna erakutsi behar diegu”. Errefuxiatuak gurera ailegatuko direla segurutzat jo du, eta bere berbetan “beharrezkoa da errefuxiatuen etorrerari aurrea hartzea eta dena prest edukitzea”. Gainera, elgoibartarrei gonbidapena egin die inplikatzeko errefuxiatuei laguntza emanez.

Eusko Jaurlaritzari ere eskatu dio Eudel eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera berehalako plana prestatzeko, etorriko direnak “ardura eta zabalatasun handienarekin” hartzeko. Sarean partaide diren herriei emergentziatzeko egoerarako ezohiko dirulaguntzak bideratzeko ere eskatu du.

Udalarari esan dio Espainiako Gobernua estutu dezala bere jarrera malgutzeko Europako Batasuneko negoziaketetan, kide den herrialde bakoitzak dagozkion errefuxiatuak har ditzan, eta eskuzabalatasunez jokatu dezan asilo politikoa ematerakoan.

Alustizarentzat elkartasun erantzuna ez da gizatasun eskaera soila, milaka euskal herritarrek emigrazioa eta erbesteratze politikoa bizi izan zutenean jaso zuten elkartasuna itzultea ere bada.



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Santa Klara auzoko haur parkean, txakur-kakak: "Santa Klara auzoko Gemini etxe ondoko haur parkea sarri egoten da txakur-kakaz beteta. Egun batean bai, eta hurrengoak ere bai, txakur kakaren bat topatzen dugu gure umeak jolasten diren parke horretan. Harrigarria da XXI. mendean kakak jasotzen ez dituzten txakur-jabeak daudela ikustea. Horren ondorioak besteak jasan behar izaten ditugu, eta mesedez errespetu pixkat eskatuko nieke besteonganako. Txakur-kakak jaso mesedez"



Basarte auzoko parkean, astelehenero zikin: "Basarte auzoko parkean ia astebururo egoten dira gazteak botelatzarra egiten, eta lurlean lagatzen dute beti zaborra. Inguru horretan haur asko ibiltzen dira, eta besterik ezean, eskertuko genuke astelehenetan brigadakoak pasatuko balira ingurua garbitzera."



Pedro Migel Urruzuno kalean zebrabide beharra dago: "Pedro Migel Urruzuno kalean eskertuko genuke obra egin aurretik geneukan zebrabidea –Salento taberna aurrean– berriro jartzea. Autoak oso azkar pasatzen dira, leku horretan behar luketena baino askoz azkarrago, eta arrisku une asko izaten dira, azkena gaur bertan. Auto gidariek ez dute oinezkoa errespetatzen eta iruditzen zaigu behar dugula babesen bat". Josu Arraiz Hirigintzako zinegotziak erantzun du auto gidariak direla hor ezarritako gehieneko abiadura gainditzen dutenak, baina hala ere, Udalak aztertuko duela gai honen aurrean zer egin."

Matrikulazio epea zabalik
Elgoibarko Haurreskola 943 742 141

Etorri eta ezagutu gure eskola!

Haurreskolak
www.haurreskolak.net

Haizea dator Iparraldetik

Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak Gotzon Garate idazle eta euskaltzalearen oroimenez urtero udazkenean antolatzen duen zikloak zazpigarren edizioa beteko du aurten. Eta zazpigarrenean, Euskal Herriaren osotasuna aintzat hartuko dute. Elgoibartarrek Euskal Herriaren iparraldea hobeto ezagutzeko da zikloaren helburua, eta horretarako, urriaren 2an hasi eta azaroaren 14an amaituko den programa prestatu du Elgoibarko Izarrak Udalarekin eta herriko beste hainbat elkarte-erakunderekin elkarlanean: Sinuose taldea, Morkaiko mendizale elkarte, Haritz Euskal Dantzari Taldea, Elgoibarko Gazte Asanblada, Etxe-Tar enpresa, Belaustegi jatetxea eta Txarriduna hotela.



Elkarlanaren argazkia: Imanol Larrañaga (Elgoibarko Izarra), Imanol Capanaga (Etxe-Tar), Eire Vila (Haritz dantzari taldea), Mikel Olaizola (Gazte Asanblada), Iñaki Konde (Elgoibarko Izarra), Maialen Gurrutxaga (Udala), Itziar Agirregomezkorta (Udaleko Euskara Saila), Ainara Argoitia (BARRREN), Iban Urizar (Sinosue), Eider Iriondo (Morkaiko) eta Imanol Urain (Txarriduna). Argazkian Belaustegi jatetxeko ordezkaria falta da.

Mixel Etxekoparren musika-kontzertua

Urriaren 2, ostirala, 23:00etan. Kultur Etxeko Sotoan. Mixel Etxekopar (Gotaine-Irabarne, 1963) txirularia, kantaria eta bertsolaria da, eta lanbidez euskara irakaslea. Hebertik Zuberoako kultura elkarteko arduraduna da, eta Gotaine-Irabarneko Xiru jaialdiaren antolatzaileetako bat. Sarrerak: Sotoan, egunean bertan. Prezioa: 3 euro. Sinuoserekin elkarlanean antolatu dute.

'Euskararen egoera Iparraldean: egia eta susmoak' hitzaldia

Urriaren 7, asteazkena, 19:00etan. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Seaska ikastoletako Euskaraz Bizi egitasmoaren arduradun Xan Airek eskainiko du hitzaldia. "Hain txarra al da Ipar Euskal Herriko euskararen egoera? Zertan, nola dabilta bertako euskaltzaleak? Nolako jarrera diogu gaiari, Elgoibartik begiratuta?", galdereri erantzungo die.

Mendi ibilaldia, Ainhoatik Donibane Garazira.

Urriaren 10-11-12. Morkaikorekin elkarlanean antolatutako ekintza da, eta interesatuek izena eman behar dute, gehienez 25 lagunentzako lekua izango baita. Izena emateko: Elgoibarko Izarra eta Morkaiko Mendizale elkarte. Izena emateko azken eguna: urriaren 2a. Prezioa: 70 euro (bazkide ez direnentzat: 80 euro)

'Iparraldeko kultura', hitzaldi-elkarrizketa

Urriaren 14, asteazkena, 19:00etan. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Antton Luku Nafarroa Behereko euskal idazle eta antzerkigilearen eta Miren Artetxe bertsolari eta filologoaren arteko elkarrizketa izango da.

Kantu-bazkaria, Aire ahizpekin.

Urriaren 24, zapatua, 14:00etan. Belaustegi jatetxean. Mixel Aire bertsolariaren alabak dira Miren, Amaia eta Paxkalin; Xalbador bertsolariaren bilobak. Etxetik datorkie kanturako zaletasuna, eta badute horretarako dohairik. Kantu-bazkarian, Eñaut Elorrietak, Uxue Alberdik, Iban Urizarrek eta Jon Gurrutxagak ere parte hartuko dute. Izena emateko: Elgoibarko Izarra (urriaren 19a baino lehen). Prezioa: 35 euro.

'Gure herriaren iparra ez galtzeko' gehigarri berezia.

Iparraldeari buruzko gehigarria BARRRENen, urriaren 30ean.

'Ederlezi' pastoralala.

Azaroaren 14, larunbata, 17:30ean. Herriko Antzokian. Haritz Euskal Dantzari Elkartearekin elkarlanean antolatu dute, Etxe-tar enpresaren babesarekin, eta sarrerak 5 euroan jarriko dituzte salgai, aurrez, Elgoibarko Izarran, eta egunean bertan, Herriko Antzokiko takilan. Gutxitan egongo da pastoralala Zuberoatik kanpora ikusteko aukera. Hego Euskal Herrian, birritan baino ez dute eman: Iruñean eta Bilbon.

Nahia x Mathtys eta Xiberoots musika-taldearen kontzertua.

Azaroaren 14, larunbata, 23:00etan. Gaztetxean. Gazte Asanbladarekin elkarlanean antolatu dute, eta sarrerak 3 euroan jarriko dituzte salgai egunean bertan, Gaztetxean. Elektro folk nahasketa proposatzen du Nahia x Mathtys-ek, euskaraz kantatua, eta reggae eta ska estiloz janzten ditu euskal kantagintzako obra ezagunak Xiberootsek.

“Iparraldekoentzat jana eta dantza gara, e

► HASIER ETXEBERRIA IDAZLE, KAZETARI ETA BLOGARIA

Hasier Etxeberria (Elgoibar, 1957) idazle eta kazetaria urte luzez bizi izan da Ipar Euskal Herrian, eta badu hango haizeen berri. Aitortu du, hala ere, hara bertara joan arte ezer gutxi zekiela Iparraldea deitzen dugun lurralde horretako jendeari eta kulturari buruz. Hegoaldearen eta Iparraldearen artean eten handia ikusten du, zaila ixten. Elkarren berri izateko ahalegin txikia egiten den iritzikoa da.

- AINARA ARGOITIA -

♦ **Estatuek ezarri zizkiguten muga politikoak eta banatu gintuzten. Eta irudipena izango da beharbada, baina kulturari dagokionez, ez dakit ez ote dagoen inoizko mugarik handiena. Ebrotik beherakoaz gehiago dakigu sarri Iparraldean ekoizten denaz baino. Zer dakigu Ipar Euskal Herriaz?**

Nik ez nekien ezer bertara joan nintzen arte, eta jabetu naiz erreten handi bat dagoela lehen muga zegoen tokian. Azkenean bi kultura handiren baitan bizi garen kultura txiki bat gara, eta hori antzeman egiten da, hizkuntzatik hasi eta idiosinkraziaraino, baina batez ere Frantziaren kasuan, eskola frantsesa dago. Eskola frantsesa zeharo desberdina da Hegoaldeko eta Espainiako eskolatik. Eta horrek asko markatzen du. Frantziaren handitasuna ikusten dute Iparraldean. Hegoaldeko abertzaleok, aldiz, kritiko izan gara Espainiatik zetozkigun gauzekin. Hori guztia, oraintsu arte, mespretxatzeko zerbaite izan da guretzat, eta geurean, geure kulturari, indartu gara. Aldiz, Iparraldean, kultura frantsesa oso liluragarria da, eta han, Parisera begira



jartzea irabaztea da, Hegoaldean Espainiara begira jartzea galtzea denean.

Hegoaldean asko gustatzen zaigu *Zazpiak bat* esate hori, baina ideiarik ere ez dakigu Iparraldeari buruz; frantsesik ere ez dugu barren ikasten! Inglesera emanda gaude, eta arrakala hori handia da. Are, esango nuke, gainera, gero eta handiagoa dela.

♦ **Zer diozu euskaraz? Nolakoa da euskararen presentzia Iparraldeko kultur adierazpenetan?**

Iparraldeko euskarak ez dauka aterabiderik; galduko den zerbaite da, eta pena handiz esaten dut hori, nire seme-alabak Iparraldekoak baitira. Baina ez diot ikusten aterabiderik, batetik, frantsesak eta espainolak asko tiratzen dituelako. Pentsa, guretzat *cortinak* direnak beraiantzat *erri-*

deauk dira. Gure euskara bereizten da inguruko hizkuntzetatik irensten dituelako terminoak eta moduak, eta haien irensten dituzte frantsesetik eta guk espainoletik eta horrek distantziamentua dakar euskararen baitan. Horretaz abisatu izan dute Ibon Sarasolak-eta, baina euskaldun oso gutxi dago kezkatuta horrekin. Eta horri gehitu behar zaio Iparraldean, eta batez ere Zuberoan, jendeak sentitzen duela galdu egiten duela bere *tasuna*, baldin eta euskara batuan hitz egiten badu. Hala, zuberotarrari eusten diote maskaradetan, pastoraletan, herri hizkeretan... badago erresistentzia bat euskara batuarekiko. Erreparatu ezazu, bestela, nola idazten dituzten oraindik ere beraien deiturak; Haritschelharrek nola idazten zuen, esaterako. Bertan goxo bat dago Iparraldean, baina bertan goxo agoniko bat da.

a haiek guretzat, dantzariak eta artzainak”

♦ Hegoaldeko askorentzat Iparraldea folklorea baino ez da gaur, lehen ez bezala. ‘Segi dezatela kantuan eta dantzaz, trebeak baitira horretan. Horixe da agian askok espero dutena Iparraldea deitzen dugun lurralde horretatik. Gorde dezatela gure tradizioa garai zaharretan legez’, zioen Nagore Amondarainek. Iparralde folkloriko bat behar dugu geu moderno agertzeko?

Moderno ez da Iparraldea izan, bere baitan zeukan Frantzia baizik. Egia da Iparraldean euskarari ezin zaionez eutsi, hurrengo zaindu beharrekoak folklorea eta pilota direla. Horri eusten diote, horrekin euren nortasunari eusten diotelakoan. Ez zaie gehiegi inporta frantsesez mintzatzea, baina. Adibiderik garbiena azkeneko pastorala da: *Pierra Lhande*. Frantsez batek idatzia da [Annick Renault-Coulon], eta hori bai dela munstrokeria bat, euskaraz ez dakien emakume batek idaztea *Pierra Lhande* hizkuntzalaritari buruzko pastorala, eta hori herriak itzuli eta kantatzea. Pentsa ezazu noraino dauden gauzak aldrebesturik Iparraldean. Nik ez dut uste folklore hori behar dugunik Hegoaldean, geu ere aski folklorikoak garelako. Nahi baduzu folklore modernizatuago bat, baina zer dira gure jaiak folklorea ez badira? Eta gauza bat: Iparraldean ere folkloriko ikusten gaituzte. Iparraldekoentzat jana eta dantza gara. Eta Hegoaldekoentzat, berriz, Iparraldekoak maskaradetako dantzariak eta artzainak dira. Horiek dira topikoak eta horiek bizi gaituzte, eta ez dugu ezer egiten gehiago ezagutzeko elkar. Gure euskaltasuna arriskuan ikusten dut, alde askotatik.

♦ Egiten dena transmititzen da? Zein da nortasun kolektibo hori eraikitzeko bidea?

Elgoibartar batek zeinekin du gehiago amankomunean, baionar batekin ala sevillar batekin? Nik uste dut

“Errealitatea iraultzea
lortuko genuke
benetan herri bagina,
benetan nor bagina,
baina zaila daukagu”

askoz gehiago duela sevillarrarekin, nahiz baionarra bera bezala euskalduna izan. Nik ikusi dut hori nire inguruan, Baionan, adineko jendearengan. Ez dakite Gernikan arbola bat dugunik ere, ez dakite EAEn lehendakari bat dugunik... ez dakite eta ez zaie ardurara, beraiek frantsesak direlako, nahiz eta euskaldunak izan. Donostiara etorri eta bi hitz euskaraz eginez gero, poztuko dira, baina haiek frantsesak dira gehien baitean. Egia da, agian, nire esperientzia mugatutik ari naizela hori esaten, eta agian egongo direla bestelakoak ere, baina nik hori ikusten dut Baionako, Miarritzeko edo Donibane Lohitzungo karraketan. Eta nahiz eta orain txanpon bakarra izan eta mugarik ez egon Hegoaldekoak ez dira joaten Iparraldera, batez ere frantsesagatik; frantsesez ez dakitelako.

♦ Bateko eta besteko oso jende gutxi harremantzen da beraz zure ustez. Baina egongo da ba biderik hori iraultzeko, ala?

Ez dakit ba. Oso zaila daukagu. Luluraren bidetik beharko luke izan, baina nola liluratuko ditugu guk Iparraldekoak geu izan gabe. Gu Espainia gara; *le toro* gara haientzat. Europako bi kultura handienetakoan erdian harrapatutik bizi den populua txiki bat gara, politikoki zaiturikoa gainera, estaturik gabea. Oso zaila daukagu herri eta kultura bezala bizirautea, eta gainera epelkerian bizi gara; hala ba-

litz bezala. Fikzioak bizi gaitu, ilusioak, eta ez errealitateak. Errealitatea iraultzen benetan zaila daukagu. Lortuko genuke benetan herri bagina, benetan nor bagina, benetan gure industria kulturala erakargarria balitz... Norbait liluratzeko eder izan behar gara, eta ez gara.

♦ Ezaugarri jakinik badu, baina, Ipar Euskal Herriko kultur ekoizpenak? Izan ere, Antton Lukuri irakurria da egiten den asko ere ez dela ezta kultur ekoizpentzat baloratzen.

Antton Luku eredu bat da. Diskurtso handiak ahantzi, eta benetako kulturgingintzan sartu da, benetako herrigintzan. Diskurtso handiak utzi ditu liburuetan-eta, baina orain ez zaio hori interesatzen. Akzioa interesatzen zaio orain. Oso erradikala da Luku, baina pena bakarra dela. Lukuk erabaki bat hartu du, erabaki lasaigarria, eta esan du: ‘Kultura frantsez puta honi ezin diot aurre egin, eta nirea egitera noa’. Eta lasaitu egin da, ez duelako ibili behar denbora osoan prozesu dialektikoetan sartuta. Eta berea egiten du, eta horrekin egiazko magma bat lortzen du bere parajeetan. Kostaldean dago populazioa, baina, eta horra apenas iristen den. Egin ditzakeen tokian egiten ditu bereak, oso leku marjinaletan, bazter bihurtu den mendi horretan. Eta jakina, horrek ezin du inor salbatu. Horrek balio dezake herri txiki bat lortzeko, hango jendea zoriontsuago izateko, baina horrek ezin du hogeikilometrora funtzionatu.

Eredu bat da, baina bakarra da eta bere ahalak mugatuak dira. Folkloreak benetakotasunaren zentzua dauka. Folklorea erabiltzen du zintzoki, folkloreak badituelako bere balioak ere. Jendea ez da konturatzen zertan ari den Luku, baina benetako agente kultural bat da. Ez da kezkatzen medioetan agertzearekin, eta beraz, ez da distraitzen besteok distraitzen garen gauza horiekin.

Aire ahizpak, abesti ezagunen airea ahots gozo bezain sendoz emana

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



Fernando Aire *Xalbador* zuten aitona eta Mixel Aire aita. Biak bertsolari izanik kanta eta bertso artean haziak dira haien biloba eta alaba diren Aire ahizpak: Miren, Amaia eta Paxkalin. Etxekoengandik, ohiturak agintzen duen eran jaso dute, beraz, musikarenganako maitasuna, Urepeleko beren etxean musika beti egon baita giroan.

Gurasoek etxean zituzten diskoak izan ziren kantak entzunez ikasi eta gero abesteko oinarrietako bat. Besteak beste Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Lourdes Iriondo eta Xabier Leteren kantak eta Iparraldeko Mixel Labeguerie, Eñaut Etxa-

mendi, eta Xalbador beraren bertsoak ahaztu gabe.

Amak etxeko pianoarekin egiten zituen harmonizatze lan ederrak eta joaldi gozoak ere aitzakia ona izan ziren hiru alabak kantuan hasteko.

Etxetik plazara

Lagun artera eraman zuten beren kantarako zaretasuna Aire ahizpek eta orain dela 25 urte inguru herriko plazan entzun ahal izan ziren beren doinuak.

Umetan jasotako kanta zahar eta herrikoiak ez ezik abesti berrien bertsoak ere abestu ohi ditu; batzutan, *a cappella*, eta musikarien laguntzaz,

bestetan; beti ere, ahots gozo bezain sendoz.

Aire ahizpek lehen diskoa iaz kaleratu bazuten ere, aurretik Euskal Herria Zuzenean festibalerako *Arrosako zolan* kantua grabatu zuten; Txakun taldearekin *Santxo Azkarra lo dago* kantua; Mikel Markezekin *Konplize ditut*; eta Niko Etxartekin ere grabatzen arituak dira.

Hegoaldean ez dira beste edozein bezain ezagunak, Iparraldean, berriz, oso estimatuak kantaren berri dutenen artean. Izan ere, beren ahotsek edozein hunkitzeko moduko sakontasuna dute eta horretan saiatuko dira Elgoibarren ere.

'Bidexka': tradizioari lotutako bide xumea

laz kaleratu zuten Aire ahizpek lehen lana, *Bidexka*, euskal kantagintza berriaren sortzaileen

ahotik ezagututako kantekin; doinuak eta hitzak aldatu gabe, baina ahots ederrez jantziak. Horrela, omenaldi txiki bat egin nahi izan diete sortzaileei, baita

kulturaren transmisioan bidea eten ez duten beren gurasoei ere.

Diskoak 13 kanta ditu, erdiak ahots hutsez eginak eta besteak Sebastien Desgransen akordeoiz lagunduak: *Eia, eia* kanta herrikoiak; Xabier Lete eta Lourdes Iriondoren *Hala ere*, *Hitzak dira* eta *Lore bat zauri bat*; Xalbadorren *Semeari* eta *Neska bat haur beharretan*; Eñaut Etxamendiren *Euskal Herri poeta*; Euskal Herria Zuzenean festibaleko *Arrosako zolan*; Sara Sotoren *Maitasun honek zugar dirudi*; Josanton Artze eta Mikel Laboaren *Gogo eta gorputzaren zillbor-hesteak* eta *Martxa baten lehen notak*; Mixel Labeguerieren *Mendiaren deia*; eta Olatz Zugastiren hitz eta doinu herrikoidun *Ni gatibu hartzeko*.

**Aire
ahizpak
Bidexka**



Haizea dator Iparraldetik

'Ederlezi' pastorala, ijitoen eta Euskal Herritarren borroka kantuz eta dantzaz emana

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

Ederlezi. Ijito romanien hizkuntzan udaberriko festa da. Elgoibarrera udazkenean ekarriko dute izen bereko pastorala, azaroaren 14an, hain zuzen ere.

Zuberoako herri-antzerkia da pastorala, hasieratik amaierara arte bertsoz kantatua eta dantzatua, Zuberoako euskararen. Antzerki emanaldia, berez, pertsonaia nagusi baten bizitzan oinarritzen da, eta gaiztoen eta onen arteko borroka baten araberaren egituratuta dago.

Mixel Etxekoparrek idatzitakoa da *Ederlezi* pastorala, ohiko pastoralak baino txikiagoa. Etxekoparrek berak honela azaldu du: "Guretzako instituzio bat da pastorala, baina gurea formatuz pastoral ofiziala baino pastoral txikiagoa da. Aktore gutxi daude, 14-15, eta udako pastoraletan baino musikari gutxiago ere bai".



zeharkatzen dituzte mendeak eta probintziak, herrialdeak beti beren familiekin, baina Euskal Herri hontan bizitu dituzten kondena batekin. Eta dakigun bezala, ez da ez zuri ez beltz izan historia Europan, eta Euskal Herrian ere ez".

Antzezlanaren ohikoa baino txikiagoa izango den arren, pastoraletako legeak baliatuko dituzte. "Istorio bat kontatzeko maneraren erabiliko dugu bere arau zorrotz bezain malguekin. Mikrorik gabe, lehen bezala ari gira, beraz garrantzia izan behar du kantaria kantari izateak. Amaren Alabak taldeko kantariak arituko dira, besteak beste, hori erakusteko".

Euskal kultura bizi

Pastoral hau da, besteak beste, Elgoibarko Izarrak Iparraldeko gurera gerturatzeko antolatutako duen ekintzetariko bat. Eta eskertu du Mixel Etxekoparrek: "Poz handia dut zeren gurea edo garena eskainiko dugu, euskal antzerki bat, euskal gai bat, euskal hotsari, euskal kantari normaltasunez hemen ibiltzeko. Zubi egileak estimatzen ditut, zuek eta gu, zu eta ni normaltasunez euskal kulturaren bizitzeko. Egunkarietan bai, instituzioetan ere bai, baina zu eta ni zer? Hortan sinesten dut %100ean, eta estimatzen dut zuen urratsa Iparraldeko hesolatzeko eta zubi egiteko, ez kalitatez baizik normaltasunez euskal kultura bizitzeko".



Ijitoak eta Euskal Herritarrak

Nicole Lougarotek idatzitako *Bohemiens* liburuan oinarrituta dago, eta egileak "ijitoen epopeia" egin nahi izan du. Pastoraletan, ijitoa den ama baten eta haren zazpi alaben istorioa kontatzen dute. Haiei segika, Zuberoatik Bizkaira, hainbat garaitan ijitoek bizi izan duten miresmenaren eta gorrotoaren testigu izango dira ikusleak. "Badira bi alderdi: alderdi bat da ijitoena edo bere munduena eta bestea euskaldunona, gure alderdi on eta txar guztiekin, beti gatazka izan baita. Orduan, haien istorioa eta nonbait tragedia izanen da kontatua", dio Mixel Etxekoparrek. "Beraiek


'Ederlezi'

Azaroak 14, zapatua, 17:30ean, Herri Antzokian.
Sarrera: 5 euro. Sarrerak Elgoibarko Izarraren salduko dira aurrez, eta egunean bertan, Herriko Antzokian.

Debabarreneko lehen raid-a, Elgoibarren

Elgoibar ere gehitu da abenturako raid proben Euskal Herriko ligara. Azken hiru urteotan liga horretan lehiatu den Elgoibarko lagun talde batek bere gain hartu du ligarako puntuagarria izango den proba bat antolatzea, eta lan handiena eginda, zehaztu dute eguna: irailaren 26a. Ekimena haiena izan da, baina Morkaiko mendizale elkartearen babesean ari dira Debabarreneko estreinako raida izango dena antolatzen, eta eskertu dute jasotako laguntza. Babesleak ere inguratu dituzte: Elgoibarko Udala, Kirol Patronatua, Alcorta eta Danobat, eta baita proba lagunduko dutenak ere: Iriondo eta Astigarraga kirol-dendak, Gobike, Bizkor bizikletak, Pitxintxu, Mara-mara, Mausitxa, Kaiku, Txarriduna, Beristain eta Ainhoa fisioterapia. Zailena egin dute. Orain kirolzale guztiei dei egin diete parte hartzera. Izenemateak Kirolprobak-en bidez egin behar dira, irailaren 23rako.

- AINARA ARGOITIA -



Ander Soraluze, Asier Arizaga, Jabi Guallar, Iñigo Araujo, Aitor Zubiaurre eta Imanol Garaizabal.

Mapa artean harrapatu ditugu Jabi Guallar eta Imanol Garaizabal antolakuntza taldeko bi buruak. Urtebete bada Elgoibarren raid proba antolatzera ausartu zirela –ausartu eta tematu– eta ordutik, GPSa lagun, makina bat ibili egin dituzte taldekideek raida jokatuko den mendi hegaleko bide eta bidexka guztiak markatzen, egiaztatzen eta neurtzen. Ezin gusturago ibili direla aitortu dute, hala ere. “Ni neu ume baten pare ibili naiz. Konta ezin beste ordu eman ditugu mendian, baina entrenatzeko ere baliatu ditugu prestaketa lanetan emandako ordu horiek”, esan du horren harira Guallarrek.

Eginbeharra sentitu zutelako ekin zioten lan horri. “Euskal Ligako proba guztiak parte-hartzaileek antolatzen dituzte. Eta jabetu ginen beti berdinak ari zirela lanean eta guk ere lehiatzen

jarraitu nahi bagenuen heldu beharko geniola noizbait arduraz horri. Elgoibarren mordoska bat gara raidetan lehiatzen garenak, gainera, eta aitzakiarik ez genuen”, adierazi du Jabi Guallarrek, taldean akuilu-lanak egin dituenak. Taldean egosi zuten horrekin Morkaikora jo zuten gero, herritarrek mendiari lotuta proposatutako ekimenei bidea ematea adostua zuelako elkarte horrek ibilbide berrirako. Eta lortu zuten Morkaikoren babesa. Halaxe, elkarlanean antolatu dute orientazioa oinarri hartuta hainbat kirol modalitate elkartuko dituen taldekako abentura proba –Guztira bost proba izango dira aurten Euskal Ligan, eta laugarrena izango da Elgoibarkoa, Lizarrakoaren, Ondarrukoaren eta Ireguakoaren atzetik (Logroño, Espainia). Azkena Arratxian jokatuko da–.

PROBAREN EZAUGARRIAK

Horixe da raida: kirol ezberdinak uztartzen dituen iraupen luze-zeko orientazio proba. Euskal Herriko ligako probek zazpi ordu irauten dute, eta bikoteka hartzen da parte. Eta ezaugarri horietatik izango ditu Debabarreneko estreinako raidak ere [10:00etan hasi eta 17:00etan bukatuko da]. Ohi legez, parte-hartzaileek mapa bana jasoko dute proba hasi aurretik, eta mapa horretan hainbat baliza agertuko zaizkie markatuta. Kontrolguneak dira, berez, balizak, eta haietan oinarrituta, bere ibilbide propioa diseinatuko du talde bakoitzak, ahalik eta denbora laburrenean puntu gehien –baliza gehien– eskuratzeko. Labur esateko, Altxorraren Bila jokoaren pareko kirol proba izango da. Berez, 52 bat kilometroko ibilbidea prestatu dute, 2.500 metroko desnibelduna, baina fisikoki ondoen daudenek bakarrik osatuko dute bide osoa. Gainerakoek pentsatu beharko dute ondo zelan egin ahalik eta baliza gehien eskuratzeko, ahalik eta esfortzu txikiena egin. Halaxe azaldu du Imanol Garaizabalek, gaur gaurkoz raid probetan eskarmentu handiena duen elgoibartarrak. Hala ere, nabarmendu du parte-hartzaile guztiak batera xamar iritsiko direla helmugara (Kalegoen plazara), zazpi orduko denbora agortzeko minutu eskasen bat falta dela.

ATAL EZBERDINETAN BANATUTA

Raida ataletan edo sekzioetan banatuta egoten da, eta bakoitzean kirol ezberdinak egiten dira. Atal baten eta hurrengoaren artean trantsizio guneak izaten dira, eta horietan han behar ez den materiala laga, hurrengo atalerako behar dena hartu eta jan eta edateko aukera izaten dute kirolariak. Elgoibarkoak bost atal izango ditu eta hiru trantsizio gune, Guallarrek zehaztu duenez. Herri barruko orientazio proba izango da lehenengoa. Hiru kilometroko inguruan markatuta dituzten balizak hartu beharko dituzte eta zehaztutako trantsizio gunean bukatu beharko dute proba, han bigarren sekzioari ekiteko. Bigarren atala mendiko bizikletan osatu beharko dute. 12-13 bat kilometroko ibilbidean hainbat baliza izango dituzte eskuratzeko, eta bukatu, antolakuntzakoek zehaztutako lekuan bukatu beharko dute atal honetako lana, bizikleta laga eta hirugarren atalari ekiteko. Ibilbide osoa osatzen duenak 850 metroko desnibel positiboa gaindituko du. Hirugarren atalean trekking-a izango dute. Eta hemen ere gauza bera: mapa eskuan hartu eta saiatu beharko dira hamabost bat kilometroan antolatzaileek jarri dituzten kontrol guneetatik pasatzen, zenbat eta gehiagotik hobe, baliza gehiago piltzeko. Guztira, 1.000 bat metroko desnibel positiboa izango

du atal honek. Hala ere, Garaizabalek nabarmendu du sekzio hau laburtzeko aukera handia izango dutela kirolariak, hala nahi izanez gero.

Laugarren atalean, mendiko bizikleta hartuko dute berriro. Irteera puntua eta helmuga zehaztuta izango dituzte, trantsizio puntuak izango direlako, eta haietatik derrigor pasatu beharko dute. 20-21 kilometroko ibilbidea prestatu dute sekzio honetarako, 600 metroko desnibel positibokoa. Bizikleta antolakuntzakoek aurrez zehaztutako lekuan laga beharko dute, hirugarren trantsizioan, eta handik errekaraino joango dira oinez. Erreka jaitsi ostean, berriro hirugarren trantsizio horretan bizikleta hartu eta bizikletaz egin beharko dute helmugarainoko bidea. Esan beharra dago, hala ere, erreka jaitsiera bosgarren sekziozat aurkeztu badu ere, atal horretako lanak raid-aren edozein unetan egin ahal izango direla.



Imanol Garaizabal, Gaizka Agirre eta Aaron Garmendia.

SARIAK

Hamar sari banatuko dituzte guztira. Kategoria bakoitzeko [gizonezkoena, emakumezkoena eta mistoa] hiru sailkatuei dagozkie eta Debabarreneko bikote irabazleari dagokiona. Ez dira, ordea, sari bakarrak izango. Izan ere, parte-hartzaileen artean raid hau lagundu duten dende emandako opariak zozketatuko dituzte antolatzaileak. Sari banaketaren ostean, berriz, bazkaltzen emango diete. “Bizipenak trukatzeko unea izango da”, aurreratu du Guallarrek. Zenbakiei begira jarri ez badira ere, 120 bat parte-hartzaile bilduko dituzten ustea dute, eta kopuru horiek eta proba bera hasi eta buka Kalegoen plazan egiten dela aintzat hartuta, ikuskizuna ziurtatuta dago Elgoibarren irailaren 26rako.

Informazio gehiagorako: <https://debarrenaraid.wordpress.com>.

200 korrikalariko marka gainditu nahi dute aurtengo Gau Krosean



Mintxeta atletismo taldeak antolatuta VI. Gau Kros herrikoa jokatu da zapatuan, irailaren 19an, 20:00etan. Izenemateak bide onetik doazela jakitera eman dute antolatzailiek. Eguazten iluntzerako da goeneko 90 korrikalarik emana zuten izena. Mintxetako helburua da irteeran 200 lagun baino gehiago batzea da (iaz 227 lagunek bukatu zuten lasterketa).

Herriko kaleetan barrena arituko dira antxixikalariak, 7,7 kilometroko ibilbidean, Kalegoen plazan hasi eta bertan bukatuz. Izena eman dutenek gaur, irailak 18, jaso ahal izango dituzte dortsalak eta txipa Sanloren garagardo azokan, Aita Agirre plazan, 18:30etik 20:00etara bitartean. Aurrez izena eman ez dutenek, berriz, zapatuan bertan aukera izango dute Kalegoen plazan 17:30etik aurrera, 15 euro ordainduta. Antolatzailiek jakinarazi dutenez, krosetako partaideek bi euroko deskontua izango dute Sanlo Eskubaloi Taldeak antolatu duen garagardo azokan, eta opariak ere zozketatuko dituzte.

Bestalde, helduenaren aurretik umeen lasterketa ere izango da zapatuan. 18:30ean hasiko da eta 3 urtetik 8 artekoak arituko dira lehenengo eta 9 15era artekoak gero. Ez da aurrez izena eman behar, Kalegoen plazara agertuta nahikoa da.

Gau krosa dela-eta antolatzailiek nabarmendu nahi dute Santa Ana, Trenbide, Bernardo Ezenarro, Ermuaranbide, Gabriel Kurutzelaegi, Pedro Muguruza eta Pedro Miguel Urruzuno kaleak moztuta egongo direla 20:00etatik 21:00etara bitartean.

Herritarrei deia

Mintxeta atletismo taldea hasia da jadanik 2016ko urtarrilaren 24rako Juan Muguerza Nazioarteko Krosa antolatzen eta horretarako beharrezkoa den dirua lortzeko antolatu du Gau Krosa. Hori dela-eta, herritarrak animatu nahi dituzte parte hartzera, izan ere, 16 urtetik gorako edonork egin dezake antxixika proba honetan. Korrikalariak ez ezik gainerako elgoibartarrak ere animatu nahi dituzte Mintxeta atletismo taldekoek, kalera irten eta antxixika ari direnak txalotzera eta kalean kirola eta jaia uztartuko dituen giroa sortzera.

Tenis ikastaroetarako izenemate epea zabalik, urriaren 2ra arte

Tenis eskolako denboraldia hasiko du urriaren 5ean 40-15 elkarrekin. Hainbat adin eta mailatako ikasleentzako tenis ikastaroak eskainiko dituzte. Mintxetako tenis pistan astean bi orduko eskolak izango dira. Tenis ikastaroetan parte hartu nahi dutenek ahalik eta lasterren Elgoibarko kiroldegian izena eman beharko dute – urriaren 2a da horretarako azken eguna-. Aurtan, gainera, taldea sortuz gero, larunbatetan bi orduko eskolak hartzeko aukera izango da Jonathan Taborcia tenislari profesional ondarrutarrarekin. Izena eman aurretik informazio gehiago jaso nahi duenak honako telefono zenbakietara deitu dezake: 696 577 872 edo 670 665 797.

Elgoibar bi erroberatan zeharkatzeko aukera izango da domekan

Herri Eskolako Kalamua Guraso Elkarrekin antolatuta, Elgoibar bi erroberatan egitasmoa izango da domekan, irailaren 20an. Distantzia laburretan txirrindua gehiago erabiltzera animatzeko helburuarekin antolatu dute. 10:30ean Kalegoen plazan abiatu eta Sallobentera joango dira bizikletaz, herriari buelta emanez eta berriz Kalegoenera itzuliz. Ondorenerako, molto motoekin eta bizikleta txikiekin egiteko lasterketatxo antolatu dute. Bestalde, aurtan, eta berrikuntza gisa, ginkana bat prestatu dute, bizikleta ibilaldia bukatzen denerako. Haur nahiz heldu, herritar guztiak daude gonbidatuta parte hartzera.




Hasi da Pala Txapelketa Mistoa hamazortzi bikoterekin



Astelehenean, hilaren 14an, hasi zen bigarren Pala Txapelketa Mistoa Kalegoen plazako frontoian. Hamazortzi bikotek eman dute izena, eta bi taldetan banatuta arituko dira lehian. Elkarren aurka jokatu ostean, talde bakoitzeko bikoterik onenak sailkatuko dira hurrengo faserako. Partidak astelehen, eguazten eta eguen arratsaldetan jokatuko dituzte, 18:30etik aurrera, Kalegoen plazako frontoian. Euria eginez gero, Ikastolako edo Aiastiako frontoietan izango dira partidak. Aurrera egiten dutenek urriaren 30ean jokatuko dute finala. Iaz Kepa Arrizabalagak eta Nerea Irustak osatutako bikotea izan zen txapeldun, finalean Igor Castañaresi eta Marta San Martini 22-15 irabazita. Antolatzaileek partidak ikustera joateko gonbita egin dute, eta jakinarazi dute errifak saltzeko asmoa dutela txapelketa antolatzaiek eragiten dituen gastuei aurre egiteko.

Axari Trail mendi lasterketa irabazi du Maite Maiorak hirugarren aldiz

Axari Trail mendi lasterketa hirugarren aldiz jokatu zuten joan zen domekan Idiazabal, Aizkorri-Aratz parke naturalean berrera, 25,4 kilometro eta 1.550 metroko desnibeldun ibilbidean. Aurreko bietan bezala, Maite Maiora izan zen azkarrena emakumezkoetan. Oihana Kortazar izan zuen aurkari nagusi. Ibilbideko lehen gailurretik Kortazar pasatu zen lehen postuan, baina 14. kilometrotik orpo-orpo igaro ziren. Probarren bigarren zatian, ordea, erritmoa bizkortu zuen mendarorak eta bakarrik iritsi zen helmugara, bi ordu 19 minutu eta 20 segundoko denboran. Oihana Kortazarrek (2:24:08) egin zuen bigarren eta Alizia Olazabal (2:34:36) sailkatu zen hirugarren postuan. Gizonezkoen proban Ander Zulaika mendarorak ere hartu zuen parte, eta 24. postuan sailkatu zen (2:29:56).



Arg.: www.fotorunner.es

Emaitzak

FUTBOLA

Haundi 0- Mutriku 2 (Erregional ohorezkoa)

PALA TXAPELKETA MISTOA

Irailak 14

Bitxori-lon 22 – Enara-Asier 13

Olatz-Igor 22 – Ana-Xabi 7

Ainhoa-loritz 22 – Marta-Kasta 18

Amets-Hasier 22 – Lara-Julen 21

Irailak 16

Bitxori-lon 7 – Amaia-Josu 22

Enara-Asier 16 – Nerea-Buru 22

Sonia-Iñigo 12 – Olatz-Igor 22

ESKUBALOIA

Bigara Pulpo 17- Alcorta Elg 27 (Sen. mut.)

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 19

10:30 Elgoibar – Ermua (Infantil txiki)

11:30 Elgoibar – Ermua (Infantil)

16:30 Elgoibar – Aretxabaleta Uda (Oh. Jub.)

18:30 Elgoibar – Ikasberri (1. erregionala)

Domeka, 20

10:00 Elgoibar – Ermua (Alebin)

PALA (Kalegoen plazan)

Irailak 21 (18:30ean hasita)

Idoia-Joseba – Jone-Fernando

Patricia-Imanol – Enara-Asier

Bitxori-lon – Nerea-Buru

Olatz-Igor – Ainhoa-loritz

Irailak 23 (18:30ean hasita)

Ainhoa-lon – Bitxori-lon

Idoia-Joseba – Amaia-Josu

Nerea-Buru – Inma-lon

Nahia-Javi – Marta-Casta

Irailak 24 (18:30ean hasita)

Ana-Xabi – Ainhoa-loritz

Inma-lon – Enara-Asier

Sonia-Iñigo – Ana-lbai

Nahia-Javi – Lara-Julen

ESKUBALOIA

Irailak 19

Olaizaga kiroldegian

09:45 Pulpo – Zarautz (Kad.mutilak)

11:15 Deka – Pereda (Kad.mutilak)

16:00 3. eta 4. postua (Kad.mutilak)

17:30 Finala (Kad.mutilak)

IMH kiroldegian

12:30 Alkorta – Eibar (Sen. mutilak)

16:30 Pneumax – Malkaitz (Kadete neskak)

18:00 Tecnifuelle – Malkaitz (Inf. neskak)

Irailak 20

Olaizaga kiroldegian

10:00 Beristain – Zarautz (Jub. mutilak)

11:30 Lauko – Gasteiz (Senior neskak)

IMH Kiroldegian

10:00 Ikus – Ermua (Infantil neskak)

11:15 Cometel – Ermua (Infantil neskak)

LANA.....**Eskaerak**

Etxeak, elkarteak, tabernak nahiz elkar-teak garbitzen egingo nuke lan. Esperientzia daukat, eta autoa ere bai.

☎ 635 354 776

Etxeak zein pegorak garbitzen edo persona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Interna moduan jarduteko prest.

☎ 632 175 172

Umeak edo behar bereziak dituzten pertsonak zaintzeko prest. Ikastolako etxekolanak egiten laguntzeko prest. Euskalduna naiz.

☎ 688 639 371

Sukaldari laguntzaile edo garbiketa lanak egiteko prest.

☎ 636 882 838

Sukaldari edo zaintza lanetarako prest nago.

☎ 688 682 398

Adinekoak zaintzeko edo margotze eta muntaia lanetarako prest.

☎ 640 209 948

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest.

☎ 632 564 679

Ingeles eskolak ematen ditut, etxek etxe.

☎ 943 744 062

Umeak zein nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest.

☎ 685 724 861 / 943 748 899

Umeak zaintzeko nahiz ingeles eskolak emateko prest. Euskalduna naiz.

☎ 608 686 814

Eskaintzak

Elgoibarko denda baterako langilea behar da. Aste barrurako eta astebururako. Beharrezkoa da 25 eta 40 urte artekoa izatea eta euskaraz hitz egitea. Bidali CVa helbide honetara: nirenda@hotmail.com

LH5 eta DBH4rako klase partikularrak etxean emateko pertsona behar da.

☎ 617 386 198

ETXEBIZITZAK.....**Alokairua**

Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Hiru logelatako etxea izatea komeni zait.

☎ 631 098 995

Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Hilean 450-500 euroraino ordaintzeko prest.

☎ 661 064 027

Elgoibarko bikote nagusi batek etxea hartuko luke alokairuan Elgoibarren bertan, erdigunean. Igogailudun etxea izan behar da.

☎ 669 339 529

Pisu txikia hartuko nuke alokairuan.

☎ 632 175 172

Familia batek bi logelako pisua hartuko luke alokairuan Elgoibarren. Gehienez 400 euro ordain ditzakegu.

☎ 637 207 806

GARAJEAK.....**Alokairua**

Garaje itxi bat emango nuke alokairuan Elgoibarren, Leku-Ederren.

☎ 688 687 820

Salmenta

Garaje itxia salgai Santa Klara kalean. 22 metro koadro dauzka.

☎ 943 742 895

OSPAKIZUNAK

1945. urtean jaiotako kinto bazkaria egingo dugu urriaren 3an Sigma jatetxean. Interesatuek 50 euro sartu beharko dituzte irailaren 30a baino lehen Euskadiko kutxako (Caja Laboral) kontu korronte honetan: ES80 3035 0007 25 0071131384. Elizkizunarekin hasiko dugu eguna, 13:00etan Santa klarako elizan. Bazkaria 14:30ean izango da, eta bazkalaretik taldeko argazkia aterako dugu. Oharra: Diru-sarrera egiteko orduan eraman kontu zenbakia banketxera.

1935. urtean jaiotako elgoibartarren ospakizuna egingo dugu irailaren 26an. Interesatuek 55 euro sartu beharko dituzte irailaren 20a baino lehen Euskadiko kutxako (Caja Laboral) kontu korronte honetan: 3035 0007 22 0071131225. Izen-abizenak zehaztu dirua sartzeko orduan. 12:30ean Maalako Milagrosa elizaren ondoan elkartuko gara. Bazkaria, 14:00etan izango da, Txarridunan.

1975. urtean jaiotako bazkaria egingo dugu urriaren 17an Belautegi jatetxean. Joan nahi dutenek 60 euro sartu beharko dituzte urriaren 13a baino lehen Euskadiko kutxako (Caja Laboral) kontu korronte zenbaki honetan: ES89 3035 0007 27 0070031823. Egunean bertan autobusa izango da 14:30ean Txankakua zubian Belaustegira joateko.

1985eko kinto bazkaria, irailaren 26an. 11:15ean elkartuko gara Ibai-Ondo erretegian, eta mokadutxo izango dugu han. Bazkaria Sigma jatetxean izango da, 15:30ean. Interesatuek 50 euro sartu behar dituzte ondorengo kontu korronte zenbaki honetan: 0075 4632310700177872 (Banco Popular). Ingresoa egiterakoan zehaztu izen-abizenak mesedez. Irailaren 23a da izena emateko azken eguna.

BESTELAKOAK.....

Bi katakume oparitzen ditut. Maiatzean jaiotakoak dira; grisak.

☎ 943 740 687 / 629 434 161

Lokal bat hartuko nuke alokairuan Elgoibarren biltegi modura erabiltzeko. Hilean 100 euro inguru ordaintzeko prest.

☎ 629 425 632

Ninfa txoriak ihes egin zigun uztailearen 9an, 21:00ak aldera, Maala inguruan. Kakatua espezie txikiena da eta hezita dago. Blue izena dauka eta topatzen duenari eskertuko genioke deitzea oso estimutan geneukan eta.

☎ 619 867 218



P. M. Urruzuno kalea, 6 behe - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net

NORFO SL

Orain dela bost urte obra berriko etxebizitza erosi zuen nire aitak. Eskrituraren araber, eraikinaren gaineko 140 metro koadroko terraza modu pribatiboan erabili eta gozatzeko eskubidea zuen. Terrazak, ordea, 100 metro koadro baino ez ditu. Orain, nire aitak, falta diren metroak erreklamatu nahi ditu. Edukieran dagoen aldearen erreklamazioa egin dezake ala preskribatu egin da erreklamazioak egiteko aukera?

Eraikin batek, entregatzerakoan, hasieran adostutakoa baino metro gutxiago baditu eta ondorioz edukiera txikiagoa badu, horren arrazoia eraikitzailearen arduragabekeria bada, eta ondorioz, jabeari eman behar litzaiokeena baino etxebizitza txikiago bat emango baliote, erreklamazioa hasteko epe orokorra hamabost urtekoa da. Beraz, kontratuaren baldintzak ez ditu bete.

Saltzailea edo sustatzailea da kontratua bete ez duena, beraz, erreklamazioa honi egin beharko litzaioke, ez etxe-jabeen elkarteari. Erosleak prestazioa itzultzeko eskatu ahal izango du, baita eragindako kalte-galerak ordaintzea ere.

AHOLKUA: Etxe jabeak modu judizialean eskatu ahal izango du jabetza-titulua berritzea partaidetza-koefizientea murrizteko eta erositako etxebizitzaren baldintzetara egokitzeke.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

administradores
Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Asociación Española de Administradores de Empresas
Colegio de Administradores de Empresas de Vizcaya



Argazkiak eguzten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Asier!** Aurten 6 urte handi. Izugarri maite zaitugu. Jarraitu horrela! Etxekoak.



Zorionak, **Julen,** zure lehen urtebetzea izan delako. Muxu handi bat familia osoaren partez, eta batez ere Xabaten partez.



Hara, **Luken,** badator horren luzarozan desio izan duzun eguna. Astelehenean beteko dituzu 4 urte, eta ospatuko dugu, merezi bezala. Pa



Astelehenean 4 urte bete zenituen, **Luken.** Zorionak, potxolo! Mutil handia egin zara dagoeneko. Muxu bat familia osoaren partez.



Zorionak mutil handi! 9 urte dagoeneko! Mila zorion, **Markel,** denon partez, eta bereziki Endika eta Danelen partez.



Zorionak, **Olatz!** Lehenengo hamarrekoa beteta! Ondo ospatu asteburuan. Familiakoien partez.




Zorionak, **Udane,** zure berderatzigarren urtebetetzean. Etxeko guztien partez, eta bereziki Goiatzen partez.



Zorionak, **Ene-riz,** neska handi. Zoragarri pasatu genuen zure urtebetetze egunean. Etxekoak.



Zorionak, **Nora-txo,** irailaren 14an 3 urte handi bete zenituzelako. Patxo handi bat, familiakoa danon partez.




Zorionak, **Aratz** Gaur urtetxo bat. Etxeko guztien partez eta bereziki arreba Jare eta lehengusu lbairen partez.



Zorionak, **Raul eta Elene.** Larunbatean egun ederra pasatuko dugu zuen ezkontza egunean.



Zorionak, **Mikel eta Nerea,** abuztuan 4 urte eta urtetxo bat bete zenituztelako. Muxu bana familiako guztien partez eta bereziki Igorren partez.



Zorionak, **Sara eta Erik,** zuen hirugarren eta seigarren urtebetetzean. Muxu handi bana, etxeko guztien partez.



Zorionak, **Ane-txi** bihar 9 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat.



Urteak bete dituzue. Bi belarriak, tira eta tira, gorritu arte. **Zorionak!**

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.

Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€.

Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguzten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.

IKASTOLAN, DENOK GARA GU

2015ean jaiotako haurren matrikulazio-aldia zabalik irailaren 14tik 25era, azarotik otsailera bitartean hasiko diren haurrentzat.

Ordutegi zabala: 7:30-19:30 / Jai-zubietan eta oporretan irekita



elgoibar ikastola



18 BARIXAKUA

17:30 'Kiribil'. Maalako parkean. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

22:30 Kontzertua: Melissa and The Jacks. Sanlo Beer Festako karpan. Antolatzailea: Sanlo E.K.T.

23:00 Sotoko Hotsak. Anari banda. Kultur Etxeko Sotoan. Antolatzailea: Sinuose.

19 ZAPATUA

10:00 Sanlo Eskubaloi Taldeko argazki ofiziala. Ikastolan.

Ondoren, Sanlo Eskubaloi Taldeko taldekako argazkiak. Kalebarren plazan.

11:30 Sanloko beteranoen partidak.

12:00 Sanlo Beer festako karparen irekiera. Aita Agirre plazan.

14:30 Sanlo Eskubaloi Taldeko beteranoen bazkaria.

18:30 Umeentzako krosa. 3tik 8urtera eta 9tik 15urtera. Kalegoen plaza. Antolatzailea: Mintxeta atletismo taldea.

20:00 Gau krosa. Juniorrak, helduak eta beteranoak. Kalegoen plaza. Antolatzailea: Mintxeta atletismo taldea.

22:00 A2an taldea. Sanlo Beer festako karpan. Aita Agirre plazan.

Ondoren, Dantzaldia.

20 DOMEKA

10:30 Elgoibar bi erroberatan. Kalegoen plazatik hasita. Antolatzailea: Kalamua Guraso Elkarte.

12:00 Sanlo Beer festako karparen irekiera. Aita Agirre plazan.

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua: *Ross Roy* obertura (Jacob de Haan); *Robin Hood* suite-a (Michael Kamen); *La Gracia de Dios* pasodoblea (R.Roig); *El Barbero de Sevilla* obertura (G. Rossini);

eta *Simon and Garfunkel's greatest hits* (N. Studnitzky). Herri Antzokian.

14:30 Paella erraldoia. Aita Agirren.

25 BARIXAKUA

22:00 Haizea zine forum-a. *Agua*. Dinamizatzailea: Loredi Salegi. Kultur Etxean. Aurrez, 21:30ean, kafea. Indian, burujabetze garaian, gertatutako istorioa kontatzen du filmak. 8 urteko neskatxo bat hiltzorian dagoen gizonetzko batekin ezkontaraziko dute. Egun berean gizona hilko da. Umea alarguentzako ashram batean sartuko dute, eta han bizitakoak erakutsiko ditu Deepa Mehtak filmean.

Nabarmenduak Jazz latinoa Soraluzen

Elgoibarko eta Eibarko musikariz osatutako Aterri taldeak kontzertua eskainiko du domekan, irailaren 20an, Soraluzeko Gaztelupe tabernan 19:00etan. Alfonso Guillo elgoibartarra kontrabaxuarekin arituko da, eta gainerako musikariak Isabel Laspiur (pianoa), Gari Araolaza (gitarra) eta Iñaki (bateria & perkusioak) dira. Latin jazz taldea da Aterri, eta hainbat estiloko kanta ezagunek osatzen dute beren erreperitorioa: txatxatxa, manboa, boleroa, rumba, bossanova, reggae-a...



Zinea (Herriko antzokian)

'PHOENIX'

18, Barixakua, 21:30

'GHADI'

19, Zapatua, 19:00
20, Domeka, 19:00
21, Astelehena, 21:00

'GÜEROS'

22, Martitena
24, Eguena
21:30

'MANDARINAS'

23, Eguazitena
25, Barixakua
21:30

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

| | | | | | |
|--|--|--|--|---|--|
| G U A R D I A K | 09:00 - 22:00 | 18 Barixakua YUDEGO 19 Zapatua ETXEBERRIA | 20 Domeka FERNANDEZ 21 Astelehena FERNANDEZ | 22 Martitena YUDEGO 23 Eguaztena ORUESAGASTI | 24 Eguena BARRENETXEA 25 Barixakua IBAÑEZ |
| | 22:00 - 24:00 | Astelehenetik igandera GARITAONANDIA | | 24:00 - 09:00 | ELORZA (Eibar) Juan Gisasola, 18- 943 206 100 |
| | * Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - Tel.: 943 756 142 | | * Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) Tel.: 943 751 638 | | * Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel.: 943 751 384 |

Abuztuan jaiotakoak

| | | | |
|---|--|--|--|
| June Alonso Ferrero 2015-08-04 | 2015-08-12 | Alex Alustiza Alberdi 2015-08-19 | Adrian Vieira Ibañez 2015-08-27 |
| Beni-Christ Kilembe Tshibangu 2015-08-07 | Israel Luna Mejia 2015-08-13 | Ireber Maguregi Otal 2015-08-21 | Sharielis Alejo Herrera 2015-08-25 |
| Alejandro Lasanta Amado 2015-08-20 | Elene Garate Larrañaga 2015-08-20 | Lea Maguregi Otal 2015-08-21 | Aritz Jato Corona 2015-08-29 |

Uztailean eta abuztuan hildakoak

| | | | |
|---|---|---|---|
| . Jesus Iglesias Endeiza 74 urte, uztailak 1 | . Manuel Lopez Atienza 77 urte, uztailak 9 | . Kontxita Arrieta Etxaniz 85 urte, uztailak 24 | . Pedro Del Rio Fuertes 65 urte, uztailak 13 |
| . Pedro Zialzeta Arregi 79 urte, uztailak 1 | . Antonio Fidalgo Losada 85 urte, uztailak 10 | . Concha Revenga Arranz 85 urte, uztailak 27 | . Alfonsa Lopez Valero 71 urte, abuztuak 3 |
| . Luis Elustondo Gorriti 88 urte, uztailak 1 | . Antonia Urrutia Arostegi 82 urte, uztailak 11 | . Miren Arrieta Barrenetxea 91 urte, uztailak 27 | . Jose Mari Osoro Arluciaga 82 urte, abuztuak 10 |
| . Leonor Maria Andres Femia 72 urte, uztailak 1 | . Jose Ramon Larrañaga Igartua 85 urte, uztailak 13 | . Maria Pilar Alberdi Arakistain 88 urte, uztailak 28 | . Jesus Mari Riaño Zubizarreta 82 urte, abuztuak 12 |
| . Juanita Lizundia Zabaleta 80 urte, uztailak 2 | . Pedro Del Rio Fuertes 65 urte, uztailak 13 | . Maria Sagrario Perez Delgado 88 urte, uztailak 29 | . Antonia Azpiazu Larrinaga 86 urte, abuztuak 3 |
| . Ramona Gorriti Aranberri 82 urte, uztailak 3 | . Florentino Leiaristi Iriondo 87 urte, uztailak 22 | . Pedro Ezkurra Areitio 92 urte, uztailak 30 | . Isabel Ruano Bajo 89 urte, abuztuak 31 |
| . Ignazio Zubia Arregi 84 urte, uztailak 9 | . Pakita Zubiaurre Urizar 87 urte, uztailak 24 | | |



ETXEBERRIA tanatorioa

Hileta zerbitzua osoa eta 24 ordukoa

KUTXAK, TRASLADOAK ETA KOROAK.
NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI ZUZENDURIKO ZERBITZUAK.
ERIETXE ZENTRUETAN ZERBITZUAK

Santa Klara, 14 - 20870 ELGOIBAR
 Telefonoak:
 943 741 327 (24 orduz)
 Sakelekoak: 635 756 295 / 629 635 203
www.funerariaetxeberria.com



Manu Sanchez



Unai Villena



// Beste aldera pasa ala nagoen honetan gelditu?", galdetu zion bere buruari Ikerrek, zubiaren aurrean geldirik, seko ikaratuta. Beldurtia zen oso, eta zalantzatia, umetatik. Eguneroko erabaki ustez hutsalak erraldoi bihurtzen zitzaizkion eta duda-muda amaigabeetan kateatzen zen maiz. Errutinaz kanpoko zerbait egin behar zuten bakoitzean, eskura zeuzkan aukera guztiak aztertzen zituen behin eta berriz, pentsamenduak pentsamenduekin nahastu eta bere barnean ito arte. Zer edo zer erabaki, okerrekoa izan zitekeela zekien, eta horrek estu-

tzen zizkion barrenak indarrez, mugikortasun oro mugatu eta desagerrarazteraino. Donostiara autobusez joaten zenean King Kong-eko zubitik egin ohi zuen geltokirainoko bidea, baina egun hartan merkatu plaza atzekotik joan zitekeela otu zitzaion. Eta, nola jakin gabe, hantxe zegoen. Aurrera egin ala ez erabaki ezinean. Konturatu zenerako hamar minutu zeramatzan zubiaren aurrean eta ordurako ez zen zubi bat, bidegurutze formako galdera-marka erraldoia baizik. Halako batean pareko errepidetik ikusi zuen bere autobusa pasatzen, ihes egiten. Larritasunez gainezka, galdera berri batek bete zion gogoa: "Hurrengo autobusari itxaron ala tren hartu?".

"Konturatu zenerako hamar minutu zeramatzan zubiaren aurrean eta ordurako ez zen zubi bat"



I. URTEURRENA

Juanito Loiola Bergaretxe

2014ko irailaren 14an hil zen 69 urte zituela.
Haren oroimenez, I. urteurreneko meza izango da domekan,
irailak 20, 12:00etan Garagartzako elizan.
Joango zaretenoi eskerrak alde z aurretik.

***Hutsunea eta tristura galanta,
baina eguna zure irribarrea oroitzuz hasi
eta izarrei begira bukatzen dugu.
Gure bihotzetan zaude. Maite zaitugu.***

Etxeko sendiak



Begoña Ibarlucea Arano

2015eko irailaren 13an hil zen, 73 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Lourdes Leyaristi Echeverria

2015eko irailaren 10ean hil zen, 93 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Jose Kortaberria Ansola

"Otsua"

2015eko irailaren 13an hil zen, 78 urte zituela.
Emazteak eta etxeko senideek
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko,
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.***





Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.eus
info@biena.eus

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Albixuri industrigunea, 1-O/1-P
☎ 943 740 547



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 705 204

Camilo Alvarez Igeltseritza

Jardiñeta 25. behea
Eibar
☎ 620 060 104
☎ 600 465 789



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

San Roke 10-A behea B
☎ 647 463 436

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 254 522

Pagoaga

Biltegia eta tailerra
San Antollin, 13
☎ 943 740 279
Bulegoa eta erakusketa
Pedro Migel Uruzuno, 8
☎ 943 943 740 512
tienda@pagoagasa.com

Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea
Mendaro
☎ 943 756 044
☎ 659 334 323

Tellabide

Azpilgoeta, 7 - Mendaro
☎ 943 755 062
☎ 607 755 062

Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 740 530
☎ 605 714 905
Faxa: 943 531 825

Zubizarreta Instalazioak

Ubitarte plaza 5. behea
☎ 943 740 789
☎ 650 586 144



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Iparelek Elektrizitatea

Kilimon hiribidea, 1, 2. lokala
Mendaro
☎ 943 530 356
☎ 659 934 964
iparelek@gmail.com

Perosanz Elektrizitatea

www.electricidadperosanz.com
perosanz@euskalnet.net
Herriko Enparantza, 5 - Mendaro
☎ 943 033 535
Ibargain, 17 - Eibar
☎ 943 206 045



Leihoak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixillon 2
2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 743 490
Faxa: 943 747 312
www.lodoso.es



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 741 552
☎ 606 431 119
☎ 606 431 120



Gremioen GIDA